

Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

BISITAK ETA IBILALDIAK

[Pasaporteak j Museatu! eta bidaiatu](#)

Museoak eta bildumak

2018/04/20 - 2018/10/20

Bidaia bat prestatzea inoiz ez da hain erraza izan. Pasaporteak hiri eta herri berezietara txango motzak planifikatzea ahalbidetuko dizu eta arte garaikide, arte eder, arkeologia, etnografia eta pertsonaia bereziei buruzko museoetan esperientzia paregabeak bizitzeko aukera izango duzu. Anitzak eta kalitate onekoak diren bildumak eta testigantzak agertzen dituzten museo xarmagarriak. Eta hori guztia, Nafarroatik atera gabe.

Taldean edo familiarekin, bikotearekin edo bakarrik, hamahiru museo eta bilduma hauek zain dituzu haien bilduma eta jardueraz zurekin gozatzeko. Gainera, hiru baino gehiago bisitatu badituzu, sariak lor ditzakezu.

Pasaporteak pertsonala eta/ edo familiarra da. Doakoa da eta hamahiru zentroetan eskuratu daiteke sarreran. Erakunde bakoitzaren zigilua bisita egindakoan eskuratuko da.

[Katedraleko klaustroaren lanak](#)

Iruñeko katedrala

Igandea / 10:00, 11:00, 12:00.

Bisitak doakoak dira, eta hiru ordu hauetan egiten dira: 10:00, 11:00 eta 12:00etan. Ordubeteko iraupena dute, gutxi gorabehera. 14 urtetik gorakoak izan behar dute bisitariak, eta mugikortasun-arazorik ez izan. Oinetako lau eta erosoak eraman beharko dituzte, obrako aldamiotik ibili beharko baitute.

ERAKUSKETAK

[José Latova. Argazkigintza arkeologikoan 40 urtez](#)

Nafarroako Museoa

2018/06/13 - 2018/09/23

Irailaren 23ra arte egongo da ikusgai argazkilari honen erakusketa zabala, 100 bideo eta argazki osatutakoa. Proposamen honek, argazkigintza arkeologikoaren maisu handi hau omentzen du.

José Latovak berak hitzaldi bat eskainiko du gaur bertan, 19:30tan eta Nafarroako Museoa.

Esan bezala, erakusketak Latovaren lana zeharkatzen du, Kultura Ministerioko Arkeologia sailaren zuzendariordea izaten hasi zenetik, bertan argazkilari bezala aritu zen 1976 eta 1989 bitartean, gaur egun arte. Era berean, ezin ahaztu, Latova estatu mailako lan arkeologiko nagusietan aritu izan dela.

[Futbola Nafarroan](#)

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia

2018/06/01 - 2018/06/30

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak, Nafarroako Futbol Federazioaren sorreraren 90. urteurrenarekin eta 2018ko Munduko Futbol Txapelketarekin bat, mikroerakusketa bat eskainiko dio ekainean zehar Nafarroako futbolaren historiari. Hainbat klubetako erregelamenduak eta talde nafar nagusietako batzuek jokaturako partidu eta ospatutako ekitaldietako argazkiak ikusi ahalko dira han. Sarrera librekoa eta doakoa da “Futbola Nafarroan”, eta Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko beheko galerian egongo da ikusgai, ekainean, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, asteko egun guztietan, asteburuak eta jaiegunak barne.

[Arma isilak gerra lasaietarako](#)

Oteiza Museoak

2018/06/01 - 2018/09/30

Oteiza Museoak berreskuratu egin du Interpretazioak programa, Imanol Marrodan artistak Alzutzako zentroan egin duen “Arma isilak gerra lasaietarako” erakusketa-proiektuarekin.

Oteizaren obrarekiko topaketa-gune bat sortu nahi duen programako hamargarren interbentzioa da jada. Programa bera museoko bigarren solairuan garatzen da, erakusketa iraunkorrekiko solasean, eta Oteiza Museoak Eguesibarko Udalarekiko elkarlanean produzitu erakusketa-proiektu hau ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean garatuko da.

KONFERENTZIAK

[Bertsolaritza Kultura Ondare Immaterial gisa KIO deklaratzeko aurkezpena](#)

Nafarroako Museoa

Asteazkena / 18.00etan

8:00 Bertsolaritza Kultura Ondare Immaterial gisa KIO deklaratzeko aurkezpena.

Ana Herrera (Kultura, Kirol eta Gazterriako kontseilaria), Gontzal Agote (Bertsozaleen Elkarte), Julio Soto (bertsolaria), Alfredo Asiáin (NUP).

19:00 Museoaren atea. Julio Soto.

Berebiziko garrantzia duenez, ondasun immateriala indartzeko lana egiten ari da Nafarroan, lekuan-lekuko erakundeek gure ondasunen inbentarioaren garapenean parte hartu ahal izan dezaten. Era berean, bultzada eman zaio NUP-eko Ondare Immaterialen Katedrari eta aholkuak zabaldu dira alor honetan aritzen diren erakunde publiko zein pribatuetan artean.

[Espartzuaren ondasun eta paisai kulturalaren aldeko babesa](#)

Nafarroako Museoa (Aretoa Nagusia)

Osteguna / 19.30etan

Ondasun Immateriala Zikloa

Hizlaria: Pascal Janin (Altiplano de Granada, S.L.)

M^a José Sagasti ikertzaile nafarrak parte hartuko du ere bai. Bere lanen artean Sesmako Espartzu Sindikatuaren inguruko liburu bat azpimarratu daiteke.

KONTZERTUAK

[Eñaut Elorrieta](#)

Tafalla Kulturgunea

Ostirala / 20.30etan

KULTUR

Eñaut Elorrieta musikari eta konpositorearen kontzertu akustikoa. Zuzeneko emanaldiak oso zainduak dira, eta Eñautek bidaiatzera gonbidatzen du jendea, norberaren barneko kartografi an barrena ibiltzera, aldi berean gogoeta eraginez aberriaz eta atzerriaz, bakoitzaren emozioen geografiaz. Deserria bakardadea da, biluztasuna da; sentimendu babes gabeen kontakizuna. Eñaut Elorrieta (Gernika, 1975) Ken Zazpi Euskal talde ezagunaren sortzaile eta kantaria da. Taldeak hiru lan plazaratu ditu: Atzo da bihar (2001), Argiak (2007) eta Phoenicoperus (2015) azken diskoa.

Oibarko Aritza Abesbatza

Kolegiatako Eliza Iglesia Orreaga/Roncesvalles

Larunbata /19.00etan

KULTUR

Aritza Abesbatza 1974an sortu zen eta 1989z gero jardunean aritu da etengabe. Aritza Abesbatzaren emanaldiak biderkatu egin dira azken urteotan, eta polifonia eta folklorea biltzen dituen askotariko errepertorio goresgarria osatu ahal izan du; mota guztietako gertaeratarako programazioak ditu, hala nola udaberriko kontzertuetarako, Eguberrietarako eta Oibarko Erdi Aroko azoketarako.

TAILERRAK

Irakurketa terraza

Nafarroako Liburutegia

hurrengo saioak

Astelehena, asteartea /17:30 - 19:00

Tailerra 12 eta 16 urte bitarteko neska-mutilentzat.

Edozein arrazoi dela-eta irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonei zuzendutako teknika da irakurketa errazarena. Teknika ezagutu nahi baduzu, Begoñak eta Marcelak emango duten tailerrean parte hartzera gonbidatzen zaitugu.

D-Espacio elkarteak laguntzen du. Topalekua adimen-desgaitasuna duten pertsonentzat zein beren senide eta lagunentzat.

Izen-emateak, ekainaren 4tik, Nafarroako Liburutegiko halleko mostradorean.

Beldurrezko ipuinen tailerra

Nafarroako Liburutegia

Asteartea, osteguna / 11:00etatik 13:00etara

Nahi al duzu ipuin beldur-beldurgarriak kontatzen ikasi Virginia eta Juan Luisekin? 6 eta 14 urte bitartekoentzat.

Sormen-idazketa tailerra, Regina Salcedoren eskutik

Nafarroako Liburutegia

Asteazkena / 18.00etan

12 eta 17 urte bitarteko neska-mutilentzat.

Idaztea gustuko baduzu, tailer honetan parte hartzera gonbidatzen zaitugu; doakoa da, baina izena emango duten lehengo hamabiek baino ezin izango dute parte hartu, Izen-emateak, ekainaren 4tik, Nafarroako Liburutegiko halleko mostradorean.

Super 8 tailerra

Huarte zentroa

Ostirala, larunbata, 17.00etan / Igandea / 11.00etan

Artxiboa Plazara! proiektutik SUPER 8 – ARTXIBO BERRIA tailerrera gonbidatu nahi zaitugu, Huarte Arte Garaikideko Zentroan ekainaren 22, 23 eta 24an aurrera eramango dena.

Tailerra Uharteko bizilagun zein herriarekin harremana duen edonori zuzenduta dago, Uharteko irudi filmikoei buruz hausnartu eta Super 8 teknika filmikoarekin esperimentatu nahi duten pertsoneri, hain zuzen ere.

Tailerrean izena ematea guztiz doakoa da eta artxiboaplazara@gmail.com helbidera e-mail bat bidaliz burutzen da, e-mailean zure izen abizenak eta telefono zenbaki bat adieraziz. Ekainaren 21a izango da izena emateko azken eguna.

Interesaturik egon daiteen norbait ezagutuz gero, mesedez mezu hau zabal iezaiozu.

Toisoiaren ebasketa, escape room-ean

karlismoaren Museoan (Estella-Lizarra)

2018/05/18 - 2018/10/14

Karlismoaren Museoak dei egiten dizue parte hartzera Toisoiaren ebasketa, escape room-ean. Museoen Nazioarteko Egun eta Gauaren kariatara eginen da, 2018ko maiatzaren 18an, eta irekita egonen da 2018ko urriaren 10era arte.

Ikerketa proiektuak garatzeko egoitza

Huarte Arte Garaikideko Zentroa

2018/04/30 - 2018/09/30

Komisariotzaren inguruko ikerketa proiektuak garatzeko bi egoitza deialdi luzatzen ditu Uharteko Zentroak (bata, lekuko agenteei zuzendua, eta bestea, bertakoak ez direnentzat). Helburua, praktika honen alderdiak Nafarroan zehar barreiatzea da.

Artxiboa plazara!

Uharteko Zentroa

2018/05/18 - 2018/07/01

Nola harremantzen da komunitate bat iraganeko ekoiztutako irudiekin? Uharteko gerturatu gara irudi filmikoen bilketa bat egin eta artxibo bat sortzeko asmoz.

Interes pertsonaletik abiatzen gara, irudi ekoizle izanik, erabili gabe gelditu den material filmikoa Bildu eta beraktibatzeko asmoa dugu ikuskatze kolektibo eta bideo sorkuntza tailerren bidez.

ZINEMA

Odio en las entrañas

Nafarroako Filmoteka

Asteazkena / 20.00etan

Martin Rittek Mafia eta La gran esperanza blanca bitartean zuzenduta, ezinhobe girotuta dago, pertsonaien bi aurpegiak erakutsiz. Hasiera batean, txuri eta beltzean pentsatuta zegoen. Produktoreek, ordea koloretan grabatzera behartu zuten.

Filma Nerea Pérez Ibarrola-k aurkeztuko du. NUP-en Historia Garaikide irakasle elkartua.

Zuzendaritza: Martin Ritt

[Flores de fuego](#)

Nafarroako Filmoteka

Osteguna / 20.00etan

Nishi detektibeak ospitalean duen emaztea bisitaztera joango da bere kide eta lagun Horiberekin zaintzan aritu ordean. Ospitalean jada, bere emakumea hilzorian dagoela adieraziko diote, eta bigarren kolpe bat jasoko du Horibe tiroketa baten ondorioz gurpil-aulkian geratu dela kontatzen diotenean. Nishi, bere jarrera lasaia arren haserrak hartuta, bere lagun emakumearen desioak betetzeko dirua lortzeko plan arriskutsu batean murgilduko du bere burua. Hala, japonia mafia yakuza-rekin arazoak izango ditu.

1997ko Veneziako Zinemaldian Urrezko Lehoi Sariaren irabazlea.

Zuzendaritza eta gidoia: Takeshi Kitano

[Gattaca](#)

Nafarroako Filmoteka

Ostirala / 20.00etan

Filmak era naturalean jaiotako haur baten istorioa kontatzen du. Hau genetikoki eraldatutako beste haurren aurka arituko da lehian, baita bere anaiaren kontra ere, bere gurasoen gogokoena.

Gattaca zinemaren historiako nahitaezko filma da, eta bere istorioa distopia transhumanista gisa sailkatua izan da.

Oscar sarietara izendatuta (Zuzendaritza artistikoa), Urrezko Globoetara izendatuta (Abesti original onena) eta Sitges-eko Zinemaldian Film Onenari eta Bertsio Originalari Saria.

Zuzendaritza eta gidoia: Andrew Niccol